

Ikastaro eskaintza zabala

Dantza, sukaldaritza, makillajea,... ▶ 3



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Ostirala ▶ 2007-09-21 ▶ V. urtea ▶ 1.241. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Aurrera KEren Eguna egingo dute estreinakoz

TOLOSA ▶

Beotibarkoak Europa eta Gipuzkoako txapelketan

Asteburu honetan jokatu dute ▶ 2

LEITZA ▶ Biharko antolatu dute eta egitarau oparoa eta erakusketa izango dira egun guztian zehar

GARRANTZIA ▶ Elkarteak 310 bazkide ditu, herri mugimenduaren bizkarrezurra osatzen duelarik ▶ 7

1321eko Beotibarko gudua gogoratu dute ekitaldi politikoan

TOLOSA ▶ EAE-ANVk antolatuta, Ikurrina eta Nafarroako bandera eskegi zituzten; Inaxio Agirrek eta Patxi Urrutiak hartu zuten hitza ▶ 2



Renobales koordinatzailea. n. u.

ALEGIA ▶

Intxurreko taldeek ekin diote denboraldi berriari

«Gogotsu» azaldu da Patxi Renobales koordinatzailea ▶ 5



ESTI EZEIZA

ASTEASU ▶

Etziko Azoka Egunean perretxiko lehiaketa antolatu dute

Esne behi lehiaketa, artisautza eta jaki postuak, ganadu erakusketa,... ▶ 4

IBARRA ▶

Alurr dantza taldeko eskolen izen-ematea

Hilaren 28an amaituko da ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Anoetako eta Irurako udalek euskalduntzea bultzatu nahi dute

Euskaraz trebatzeko deia egin dute eta herrian ikasteko aukera emango dute ▶ 4

KALE KANTOITIK ▶ JOXEMI SAIZAR

Elkartek, herriaren arima

Elkartek herriaren bihotza eta bizitza izan direla esan da urtetan gure inguruan. Eta aste honetan hori konprobatu ahal izan dugu. Baina elkarteek ari naizenez, ez naiz ari elkarte gastronomikoez bakarrik. Horiek ere badute bere garrantzia, baina behar bada azken urteotan bere indarra, protagonismoa eta ekimena zertxobait itzali egin da.

Festa polita jarri zuten Txinpartak eta Gure Txokoak Oria ibaiaren inguruan igandean. Ez nuen nire kiniela asmatu. Berdin da. Herri giroa izan zen irabazlea. Aurrera aterako al da kargu berria estreinatuta duen alkateak (mutil hau urrutiti iritsi-

ko da) eta zinegotziek irabazle-
ei sanjoanetarako bota dieten
arraun desafioa?

Alurr dantza taldeak Ibarra-
ko herri osoa bildu du bere in-
guruan bere historian zehar.
Aurkeztu berri den liburuan
hori islatu du.

Tolosako lau kirol elkartek
antolatuta dute aurtengo gara-
garde festa, urterokoa bezain
arrakastatsua jendearen alde-
tik. Jendeak ondo erantzuten
du elkartei laguntzeko. Eta, ba-
teze ere, garagardea edateko eta
Altunatarren saltxitxak jateko.
Bandaren polka eta martxa ale-
maniarrei baino kaso gehiago
egiten zien behintzat.

Zine-klubak ere hasi du bere

denboraldia aste honetan. Ur-
tez urte Donostiako eta beste le-
kuetako zinemalditan sarritzen
dituzten filmak, edo parekoak,
gureganatzeko meritua ez da
makala.

Jubilatu elkarteek ere badute
bere papera herrian. Gaztetxe
asko baino (ez denak, beti gel-
dituko zaigu Bonberenea) hi-
tzaldi, irteera (Leitzakoak Kuba-
ra!), mus txapelketa, dantzaldi,
kazueta lehiaketa edo bazkari
gehiago antolatzen dute kasu
ugaritan. HITZAKo agenda digi-
tala ikusi besterik ez dago. Vi-
llabonako Biltoki elkarteak eki-
taldiz josiriko astea prestatu du
hurrengorako, XXXIII. urtez. Eu-
sti gazteak!

TOLOSA ▶ POLITIKA

1321eko Beotibarko gudua gogoratuz

Nafarroako bandera eta ikurrina zabaldu zituzten atzoko ekitaldian



Ekitaldiaren amaieran Patxi Urrutia mintzatu zen. E. EZEIZA

E. EZEIZA

1321ean gertatu zen Beotibar-
ko Gudua gogoratuz, ekitaldi
berezi bat burutu zuten atzo
iluntzean. ANV-EAEK antolatu-

ta, hainbat herritar bildu ziren
Triangulo plazan, ikurrina es-
kuetan zutela. Bertan gauzatu-
tako ekitaldi politikoan, Nafar-
roako bandera eta ikurrina
zintzilikatu zituzten Kultur

Etzeko balkoitik, Tolosako
hautetsiek, atzean, Nafar gor-
tearen ereserkia entzuten zen
bitartean. Ondoren, dantzari
batek bi banderei omen egi-
nez, aureskua dantzatu
zuen.

Ekitaldiari hasiera emateko
Inaxio Agirre AuBko bozera-
mailea mintzatu zen. Honek
duela 751 urte gertatutako
guduaren nondik norakoak
azaldu zituen, kokapen histo-
riko bat eginez. Ondorioztatuz,
«gaur egun, Espainiako
estatuak, euskal lurraldeak
banatzeko duen helburua aspalditik datorrela». Izan ere,
Beotibarko gudua, gipuzkoar
eta nafarren arteko borroka,
«anaien arteko gudua izan
zen». Ekitaldiaren amaieran
Patxi Urrutiak, Nafarroako
Batasunako mahai nazionale-
ko kideak, hartu zuen hitza.
Honek, lurraldetasunaren ga-
rrentzia azpimarratu zuen.

TOLOSA ▶ ZESTA PUNTA

Beotibarkoak
Europa eta
Gipuzkoakoan

Asteburu honetan jokatuko dira bi
txapelketak; hor izango dira Tolosakoak



Beotibar taldeko infantilak Gipuzkoako txapelkun izan ziren iaiz. HITZA

ESTI EZEIZA

Asteburu honetan jokatuko da
Zesta Puntako Europako Kopa
eta hemen lehiatuko dira Beoti-
bar Zesta Punta elkarteak pun-
tistak. Eskualdekoak kadete
eta jubeniletan lehiatuko dira.

Lehiaketa Euskal Pilota Fe-
derazioen Europako Elkarteak
antolatu du eta Nafarroan, No-
aingo herrian izango da. Beoti-
bar Zesta punta elkartetik, ka-
dete mailan, Arkaitz Izagirre
eta Xabi Bildarratz izango dira
Europakoan. Jubeniletan ber-
rrez, Asier Mujika eta Julen Te-
lleria. Kadete mailakoek lehen-
dabiziko partida, bihar izango
dute, hauek Hossegor (Gasteiz)
izango dute aurkari. Norgehia-
goka 12:30ean hasiko da. Bigar-
rena, etzi izango da, hauek
13:00etan, Zumaiaren kontra
ariko dira. Jubenilek berriz,
bihar arratsaldean izango dute
lehen txanda. Hauek Biarritz A.
C.ren kontra lehiatuko dira
19:15etik aurrera. Igandekoan,
Gasteiz izango dute aurkari.
Partida hau 16:30ean hasiko
da.

Bihar eta etzi bitartean le-
hendabiziko fasea jokatu-
ko dute. Hala, partida hauetan ira-
bazten dutenak bigarrenera
igaroko dira, eta hilaren 29an
jokatu beharko dute berriro.

Gipuzkoako Txapelketa

Europako Kopaz gain Gipuzko-
ako Txapelketa ere jokatu-
ko dute asteburu honetan. Hemen
ere parte hartuko dute Beoti-
bar Zesta-punta elkarteak.
Kadete mailan bi talde ariko
dira. Gainera hauek, elkarren
aurka jokatu beharko dute
gaur iluntzean, 20:00etan, Beoti-
barko frontoian. Hala, Beñat
lopez eta Joseba Esnaola, Oier
Zaldua eta Antton Teleriarekin
lehiatuko dira.

Jubenilek eta nagusiek ere
hartuko dute parte txapelke-
tan. Hala ere, lehendabizi aipa-
tutakoek Andoainean izango
dute partida. Nagusietan, bi bi-
kote ariko dira eta hauek Uz-
turpe pilotalekuan jokatu-
ko dute gaur. Batak Zumaiaren
aurka, eta besteak Donostia-
ren kontra.

lapur zuloa



irailak
21
ostirala
20:00

Irurako Ikastola

Jai
zoriontsuak
pasa!

ikastolako tabernan elkar ikusiko gara

San Miguel, 5 • IRURA • Tel.: 943 69 43 74

GIZARTEA ▶

Gazteei zuzenduriko ikastaroak Galtzaundi eta Udalaren eskutik

Urritik abendura arte sei ikastaro izango dira aukeran; dohainik edota 10 euroren truke egin ahalko dira



Aurten besteen artean txalaparta eta oinarritzko sukaldaritza ikastaroak izango dira. HITZA

UR ALGUERO

Aurten ere Tolosako Udaleko Gazteria zerbitzuak Galtzaundi Euskara elkartearekin elkarlanean hainbat ikastaro jarri ditu martxan. Hauek urritik abendura artean izango dira eta euren prezioa hamar eurokoa izango da *Sex On* eta *Gizarte trebetasunak* ikastaroetan izan ezik. Azken hauek dohainik izango dira.

Ikastaroak 13 eta 30 urte arteko gazteei zuzendurik daude eta tolosarrek lehentasuna izango dute; dena den, Tolosatik kanpo bizi diren herritarrek ere badute izen-emateko aukera.

Ikastaro guztiak Tolosako Kultur Etxean izango dira *Oinarritzko sukaldaritza* ikastaroa izan ezik; hau Ero-Etxe elkartearen emango dute. Bestalde, *Gizarte trebetasunak* ikastaroari dagokionez, Hezkide eskolarekin batera antolatuta dute, eta bertan parte hartzen dutenei, ikastaroa amaitzean asistentzi zurtargiria emango zaie.

Ikastaro hauen gaineko informazio gehiago eskuratu ahal izateko www.tolosakoudala.net web orria ikus daiteke, gazteria@tolosakoudala.net helbidera idatzi edo bestela, 943 670383 Kultur Etxeko telefono zenbakira ere dei daiteke.

IKASTAROAK ▶

Urriari hasi eta abendura arte izango dira ikastaroak.

OINARRIZKO SUKALDARITZA

Lekua. Ero-Etxe elkarte.

Egunak.

Urriak 4, 11, 18, eta 25.

Ordutegia.

19:00etatik 21:00etara.

Taldea. 15 lagun arte.

Prezioa. 10 euro.

MAKILAJE IKASTAROA

Lekua. Kultur Etxea.

Egunak. Astelehenero urriaren

1etik abenduaren 17ra.

Ordutegia.

18:30etik 20:00etara.

Taldea. 15 lagun arte.

Prezioa. 10 euro.

TXALAPARTA IKASTAROA

Lekua. Kultur Etxea.

Egunak. Asteartean urriaren

2tik abenduaren 18ra arte.

Ordutegia.

15:00etatik 20:00etara.

Taldea. 20 lagun arte. Bikote

bakoitzeko ordu erdi emango dute.

Prezioa. 10 euro.

SALSA-MERENGUE

Lekua. Kultur Etxea.

Egunak. Asteazkenero,

urriaren 3tik abenduaren 18ra.

Ordutegia.

19:00etatik 21:00etara.

Taldea. 15 lagun arte.

Prezioa. 10 euro.

SEX ON!

Lekua. Kultur Etxea.

Egunak. Ostegunero urriaren

4tik abenduaren 19ra arte.

Ordutegia.

19:00etatik 20:30etara.

Taldea. 20 lagun arte.

Prezioa. Dohainik.

GIZARTE TREBETASUNAK

Lekua. Kultur Etxea.

Egunak. Urriak 14, 24 eta 31.

Ordutegia. 17:00etatik

20:00etara.

Prezioa. Dohainik.

MERKATARITZA ▶

Denda txikientzat formakuntza ikastaroak

ERREDAKZIOA

Tolosako Merkataritza Foroak bi tailerrez osaturik dagoen formakuntza ikastaroa antolatu du denda txikien berri zea eta lehiakortasuna hobetzeko.

Dendetan bertan laguntza pertsonalizatua eskainiko dute arloa ongi ezagutzen duten adituen eskutik. Lehendabiziko tailerra irailaren 24a eta 26a bitartean izango da *Nola hobetu denda txiki baten errentagarritasuna* izenburupean. Bertan, merkataritza txikiaren lehiakortasuna hobe-

tzeko gakoak, kudeaketa ekonomikoa, merchandisinga, eta abar landuko dituzte.

Bigarren tailerra *Nola jarri martxan merkataritza politika konpetitibo bat* izenekoan izango da azaroaren 13tik 15era artean. Honetan, merkataritza politika lehiakorra nola gauzatu eta sustapen egutegiak nola egin ikasiko dute, beti ere merkataritza jarduera bakoitzari lotuta.

Hamalau dende jasoko dute prestakuntza hau, bai taldean eta baita banan-banan ere.

NATURA ▶



Ibaien egoeraz erakusketa

Erredakzioa ▶ Orixe BHIko 4. DBHko ikasleek, beste ikastetxeekin batera koordinatuta, ibaien egoeraren azterketa ekologikoa egin dute azken urte hauetan, Ibaialde proiektuaren bidez. Proiektu honekin lotuta erakusketa bat antolatuta dute ikastetxez ikastetxe mugituko dena, eta datorren ostegunera arte Orixe institutuan egongo da ikusgai. HITZA

txanogorritxo

irailak
TOLOSA
22
larunbata
17:00

Carpintería ATARI, S.L.
ARROZTEGIA

Arrozgi melankio. Olibak eta berriak. Eskalera eta atariak marrota. Ezebitzarriko eta hiki komertzialak arroztegia.

car@atari.net

Industria Iturriztegiaren, 1 • 20271 IZURBA • Tel: 943 90 01 43 • Fax: 943 80 24 20

ANOETA-IRURA ▶ EUSKARA

Euskaraz trebatzeko deia egin dute bi udalek

ERREDAKZIOA

Anoetako eta Irurako udalek, bi herrietako ikastolekin batera, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea bultzatu nahi dute. Trebakuntza hori herrian bertan egiteko aukera eman nahi diete herritarrei. Horrela, herrian taldea osatuz gero, eskolak bertan emango dituzte.

Bi udalek eta ikastolek euskararen erabilera sustatzeko bakoitzak bere konpromisoak hartuak dituela diote. Bide beretik, herritarrei ere euskalduntzeko edo euskararen alfabetatzeko deia zabaltzen diete. «Nahiz eta gutariko

gehienok euskaraz bizi garen», azaldu dute lau erakundeek, «batzuetan zailtasunak izaten ditugu euskaraz idatzi eta irakurtzeko. Eta oraindik ere badira euskaraz ez dakiten herritarrik, bertakoak nahiz etorkinak».

Bai Anoetako eta bai Irurako udalek diru laguntzak ematen dituzte euskara ikasteagatik. Izena emateko Irurako udaletxera edo Anoetako udaletxera jo dezakete interesatuek. Informazio gehiago nahi izanez gero, Euskara Zerbitzuetara dei daiteke: 943 69 13 33 (Irura) eta 943 65 12 00 (Anoeta). Izena emateko epea urriaren 11n amaitzen da.

LEITZA ▶ PILOTA

Eskuz binakakoan lau partida gaurkorako

ERREDAKZIOA

Leitzako III. Eskuz Binakako Txapelketako lau partida jokatuko dituzte gaur, 19:00etan hasita. Lehenengoan Apeztexea eta Bolinaga, Jauregi eta Pazosen aurka ariko dira kadeteen mailan. Jubeniletan,

Idoate eta Nubla, Alduntzin eta Jeregiren kontra ariko dira. Gero, Sagastibeltza eta Agirianok, NARBARTE eta GALTZA izango dituzte aurrez aurre. Azkeneko partidari, senior mailan, O. Gonzalez eta Baez I, Erroizena eta Bengoetxearen kontra ariko dira.

ASTEASU ▶ AZOKA



Iazko azokan artisautza eta elikagai postuekin eta mikologia erakusketarekin bete zen frontoia. I. GARCIA

Perretxiko lehiaketa egingo dute aurten ere Azoka Egunean

Esne behien lehiaketa izango da berritasuna; egun guztian zehar hainbat artisautza eta elikagai postu egongo dira

IMANOL GARCIA

Azoka Eguna antolatu dute Asteasun etzirako. Egun guztian zehar ganadu erakusketa eta artisautza eta elikagai postuak egongo dira. Iaz lehenengo aldiz egin zen perretxiko saski ederrenaren lehiaketa berriro egingo dute aurten ere. Horrez gain, eta iazkoari utsiz, ardi txakur lehiaketa egingo dute. Berritasun modura, behi esnearen lehiaketa egingo dute aurten.

Aurreko urtean bi saski bakarrik aurkeztu ziren perretxikoen lehiaketara. Ainhoa Etxabe udal dinamizatzaileak azaldu duenez, espero dute aurten partaidetza handiagoa izatea: «Jaz lehenengo urtea zen lehiaketa antolatzen genuena eta gainera perretxikoak biltzeko baldintza onik ez zen izan. Aurten jende gehiago animatuko dela espero dugu eta baldintzak ere hobea geroa dira bilketa egiteko».

Lehiaketa irabazten duen saskia enkantean aterako da. 13:00etarako aurkeztu behar da otarra, perretxiko jangarriekin. Iazko enkantean 142 euro ordaindu zituen Asteasuko Olarreaga-Goiko jatetxeak saski irabazlearengatik. Horixe da, hain justu, perretxiko biltzaile saridunak lortzen duena, enkantean ematen den dirua. Dirudenez, zenbaitzuek enkantean parte hartuko dutela ziurtatu dute. Antolatzailerekin perretxiko biltzaileak animatzen dituzte parte hartzera.

Mikologia erakusketa

Lehiaketaz gain, aurreko urtean egindako mikologia erakusketa jarriko dute. Aranzadi zientzia elkartearen laguntzaz, 100 espezie ezberdin ikusi ahaliko dira, «behar bezala identifikatu eta sailkatuak», antolatzailerekin esanetan. Perretxikoen erakusketa frontoian egingo dute.

Ganadu erakusketa aurten Lamitegi zelaian egingo dute. 100 burutik gora ikusi ahaliko dira: esne behiak, larre behiak, zaldiak, ahuntzak, ardiak... Leku berean egingo da esne behien lehiaketa, 11:30ean. Antolakuntzatik azaldu duteenez, lehiaketa didaktikoa izango da. «Behiak paseatu egingo dituzte leku jakin batetik eta puntuaketarako balio duten ezaugarriak komentatu egingo dituzte», azaldu du Etxabek. Bost maila izango dira eta baserri bakoitzak bere abere onena eramango du.

Beste lehiaketa arratsaldean izango da. Euskal arrazako ardi txakurren lehiaketa 18:00etan egingo dute Ibargain zelaian. Egundik aurreratik Oñatik Txapelketa entzutetsuan parte hartuko duten zenbait ardi txakurak Asteasun izango dira.

Egun guztian zehar artisautza eta elikagai postuak zabalik izango dira. Horretarako plaza jarriko den karpan eta frontoian egin ahal izango dira salerosketak. 50 postutik gora egongo dira. Horrez gain modakutxoak hartzeko edo ezterria bustitzeko txosna ere izango da. Bestalde, kale giroa jarriko dute zanpanzarrek beraien zintzarriekin.

1982-2007/Aitzol Udal Euskaltegia / 25. urteurrena / ika-
bazara / zatoz zu ere / irailaren 23ko BAZKARira / 943651
2007/Aitzol Udal Euskaltegia / 25. urteurrena / ika-
zatoz zu ere / irailaren 23ko BAZKARira / 943651006 / 1
Aitzol Udal Euskaltegia / 25. urteurrena / ika-
zatoz zu ere / irailaren 23ko BAZKARira / 943651006 / 1
Udal Euskaltegia / 25. urteurrena / ika-
zatoz zu ere / irailaren 23ko BAZKARira / 943651
1982-2007/Aitzol Udal Euskaltegia / 25. urteurrena / ika-
bazara / zatoz zu ere / irailaren 23ko BAZKARira / 943651
2007/Aitzol Udal Euskaltegia / 25. urteurrena / ika-
zatoz zu ere / irailaren 23ko BAZKARira / 943651
2007/Aitzol Udal Euskaltegia / 25. urteurrena / ika-
zatoz zu ere / irailaren 23ko BAZKARira / 943651

ikasle izan bazara,
**ZATOZ
ZU ERE!**

aukera ezazu,
bizi euskaraz
berria

ALEGIA ▶ FUTBOLA

Intxurreko taldeek hasi dute denboraldia

Talde guztiak Lehen Mailan dira; helburu nagusia «mailari eustea» eta gazteagokoetan «igoera fasea jokatzea» dira



Santos Irazustabarrena, Kiroltasunaren Saria jasotzen. F. RENOBALDES

NEREA URBIZU

Intxurre futbol eta areto futbol taldeak hasi dira dagoeneko ligan. Bakoitza bere mailan, hau da, Lehen Mailan. Lurraldekoen hasiera ez da ona izan, 2-4 galdu baitzuten asteburuan etxean, baina Patxi Renobales koordinatzaileak esan bezala, «aurten gogorra izango da, mailaz igo direlako, eta oso talde onak daude. Helburua mailari eustea izango da».

Bihar Amara Berri taldearen aurka ariko dira 19:00etan, Amaran. Jubenilak, berriz, 16:30ean Alegian bertan. «Jubenilak iaz kadete mailan zebiltzanak dira, beraz, talde gaztea da. Aurten helburua igoera jokatzea izango da».

Helburu bera dute kadeteekin. 7 talde daude haien multzoan, jubentzen mailan bezala, eta Gipuzkoako kopa edo igoera joka dezakete. Beraz, igoera-

behar zaie jokatzeko aukera». Eskolarrak dira, eskolaren bidez bideratzen da.

Kiroltasun saria lurraldekoek aurten ere eskuratu dute: «Jarrera, falta kopurua, portara eta halakoak hartzen dituzte kontuan. 10 urtetan 5 bat aldiz eman digute». Gipuzkoako Futbol Federakuntzako lehendakariak eman zien saria ekaina aldera, Juan Luis Larreak, hain zuzen.

280 bazkide ditu Intxurre kirol elkarteak. Urtean 10 euro ordaintzen du bazkide bakoitzak, eta modu honetan «jokalarien fitxak, arropak, txartelak, eta halakoak egiten dira». Aurten ere, bazkideak eta ikusleak beharko ditu Intxurrek gradetan, «animoko emateko batez ere». Kalitatezko futbola eta areto futbola erakutsi dute azken denboraldian, eta hala espero dute aurten ere.

Patxi Renobales koordinatzailea «hasteko desiatzen dago, ematen ez badu ere, ikusten ez den lana egin behar delako txapelketa hasi aurretik». Behin jokatzen hasita, beraz, lasaituko dira.



Renobales, koordinatzailea. N. U.

rengatik borrokatuko dute. Jubenilekin bezala, «kadeteak oso gazteak dira, infantiletan aritutakoak». Bihar Tolosaren aurka ariko dira Usabalen, 11:45ean. Talde honetako bi jokalaritokosara joan dira jokatzera; Xiker Renobales eta Iñaki Altuna.

Senior mailako neskek Asier Etxaniz billabonatarren prestatuko ditu aurten. Tolosako bi berri hasiko dira, eta baja bat egon da. Beste taldeetako entrenatzaileak mantenduko dituzte. Beraz, Santos Irazustabarrena lurraldekoekin, Joxean eta Dabid jubentzenekin, Eneko Garmendia kadeteekin eta Xabat Renobales infantilekin.

Bazkideak eta ikusleak

Infantiletan 26 gaztetxo daude: «Asko dira, baina Iruratik, Altzotik, Anoetatik edota Amezetatik datoz asko. Denei eman

ALEGIA ▶

Intxurre pilota eskolan infantilen izen-ematea

Astelehenean Alegiko Intxurre pilota eskolako lehen entrenamendua egingo dute. Infantilak dira, hau da, 1994an eta 1995ean jaiotako neska-mutilak. Elorri pilotalekuan 18:00etan elkartuko dira, baita izena emateko ere. Beste herritakoek ere eman dezakete izena. Beraz, interesa duen guztia ager daiteke pilotalekura izena emateko, nahiz pilotan jolasten hasteko. Adierazi bezala, infantilen mailakoa izango da.

AMEZKETA ▶

Soinketa eta yoga ikastaroak

Amezketan soinketa eta yoga ikastaroak antolatu dituzte 60 urtetik gorakoentzat. Soinketa urritik ekainera bitartekoa izango da: Ugarteko Elkartean, asteazkenetan 16:00etan. Amezketan, berriz, balioanitzeko gelan 1. eta 3. asteko asteazkenetan 17:30ean. Yoga, berriz, urritik ekainera balioanitzeko gelan, 16:00etan hilabeteko 2. eta 4. asteko asteazkenetan. Hileko kuota 5 eurokoa da eta izena hilaren 28a baino lehen eman behar da udaltxean.

PILOTA ▶

Probintziala hasita, partidak gaur eta bihar

Probintziala hasi da pilotan, eta eskualdeetakoak hasi dira bertan. Gaur 19:30ean Aurrera-Saiaz pilota eskolak Bidarian izango ditu norgegiagokak. 21:00etan Beotibarren seniorrak ariko dira. Bihar, berriz, Beotibarren 11:00etan jokatuko dute Zazpi-Iturrikoekin lehiatuz. Amezketan 21:00etan Zazpi-Iturri ariko da Aurrera-Saiazekin ere. Bihar 16:00etan 3 partida izango dira. Altzon 12:00etan ere, bihar.



Soin heziketa helduentzat. HITZA

BALIARRAIN ▶

Egutegi berrirako herritarren argazkiak

Baliarraingo kultur batzordeak 2008. urteko egutegirako argazkiak aukeratu nahi ditu. Herria gaitzat hartuta, herritar bakoitzak asko jota 5 aurkez ditzake. Urriaren 15a da aurkezteko azken eguna, eta gutunazalean sartu behar dira, eta barruan egilearen datuekin beste gutunazal bat. Koloretan edo txuri-beltzak izan daitezke.

BERASTEGI ▶

Bihar ez da Pirritx eta Porrotxen saiorik izango

Biharko Pirritx eta Porrotx pailazoan saioa aurreikusita zegoen Berastegin, *Marimotots* saioarekin. Galtzaundi euskara taldeak antolatua zen, baina bertan behera geratu da emanaldia, eta, ondorioz, ez da saiorik izango. Ez dute data berririk eman pailazoan saioaren inguruan, baina, hala ere, noizbait egiteko asmoa badute.

Bai Euskarari Ziurtagiria

Kalitatea

elkarlana

lehiakortasuna

balio erantsia

erantzukizun soziala

hitza

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

IBARRA ▶ DANTZA

Alurr dantza eskolan hilaren 28ra arte eman ahalko da izena

Haur, gazte eta helduek Benito Izagirre kultur etxean egin beharko dituzte matrikularen gestio guztiak



Alurr dantza eskolan matrikula egiteko epea zabalik dute haur, gazte eta helduek. HITZA

ASIER IMAZ

Alurr dantza eskolak matrikulazio epea zabalik du. Haur, gazte eta helduek izena emateko hilaren 28ra arte izango dute epea, izan ere, arduradunek «epeak errespetatzeko» eskatu dute. Izen-ematearen gestio guztia Kultur Etxean egin beharko da, bertako matrikula orria bete eta banketxe-ko ziurtagiriarekin entregatuz.

Haurren matrikula, 120 eurokoa izango da senide bakarren kasuan. Bi senidek izena eman nahi baldin badute, 195 euro izango dira eta 3 senidek 265 euro ordaindu beharko dituzte. Lautik hamasei urte

bitarteko haurrek, 8 klasetan banatuko dituzte eta ikastaroak lokal berrian eta zaharrearrean emango dira.

Gazteak eta helduak

Gazteei dagokienez, Eider eta Eduren klaseak egongo dira. 155 euro edo 185 euroko prezioa dute izen-emate hauek eta ikasleak talde ezberdinetan banatuko dira. Bi edo senide gehiagok izena eman nahi badute, hauek 5%eko deskontua izango dute.

Berriek ostiraletan izango dituzte eskolak lokal zaharrearrean Eiderrekin. Lehengo urteko taldea berriz lokal berrian el-

kartuko da asteartean. Eduren eskoletan, lau maila egongo dira, beteteranoena eta gazteen hiru, hain zuzen ere. Guztiak lokal berrian jasoko dituzte ikastaroak. Lau taldeen klaseak asteazken eta ostegunetan izango dira.

Azkenik, helduen kasuan 125 euroko matrikula ordaindu beharko dute hauek. Miren eta Iñakiren taldeak euskal dantzak landuko ditu. Maierren ikasleek berriz, fandango, arin-arina eta plazako dantzak ikasi edo hobetuko dituzte lokal zaharrearrean. Bi taldeak astelehenetan elkartuko dira, lehenak lokal berrian eta bigarrenak lokal zaharrearrean.

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Etziko manifestaziorako deia ezker abertzaletik

A. IMAZ

Tolosaldeko ezker abertzaleak etzi 19:30ean Lizartzan egingo den manifestazioan parte hartzeko deia luzatu du.

Lizartzako «aferaren» aurrean, PP eta Regina Otaola salatu dituzte, «Gaztelak 1512. urtean Nafarroako Erresumarekin egin zuen bezala, PPK, Otaola andrea buru duela, Lizartza menderatu nahi izan du inongo zilegitasunik gabe». Horren aurrean herriak erantzuna eman duela aipatzen du ezker abertzaleak; «jazarpeneren aurrean herriak protesta egin duelako, hainbat

herritar epaituak izan daitezke, ez hemen, Madrilen baizik, Audentzia Nazionalen, euskal herritarren aurka aritzen den epaitegian».

EAJri ere kritika egin dio tolosaldeko ezker abertzaleak, «Alderdien Legearen aurka omen dagoen EAJ-PNVk estrategia horren kolaboratzaile eta babesle sutsua bilakatu da».

PPren eskaera Balzari

PPk, Javier Balza barne sailburuari etziko manifestazioaren aurrean «koka» dadin eskatu dio, «bertan behera» uzteko.

GIZARTEA ▶

Mugikortasun ekitaldiak eskualdeko herritan



Gaizki utzitako autoei isunak jarri zieten haurrek Ibarren. HITZA

A. IMAZ

Mugikortasun Iraunkorraren Astea burutzen ari da eskualdeko hainbat herritan. Gaur Zizurkilan 17:00etan bizikleten txekeoa egingo dute Joxe Arregi plazan.

Ibarren berriz, Uzturpe Ikastolako ikasleek, Lehen

Hezkuntzako 3. mailatik aurrerakoek, hain zuzen ere, bizikleta martxa burutuko dute Ibarra kaleetan zehar. 11:30ean Belabieta kiroldegitik irtengo dira Azkue auzoruntz. Hemendik San Inazio auzora joango dira, ambulategitik barrera plaza geraturatzeko.



Sartu euskararen Xarean,

Irurako Udalak herritar guztiei eta kanpotik etorriko zaretenei jai zoriontsuak opa dizkizue.

Tel.: 943 69 13 33

Faxa.: 943 69 33 41



LEITZA ▶ GIZARTEA

Aurrera KEren Eguna egingo dute bihar dantzari, pilotari eta ekitaldi ugarirekin

Festa 09:00etan hasiko da, eta plazan egingen dituzten ekitaldiez gain egun osoan zehar argazki zaharren erakusketa jarriko dute ikusgai Aurreran



Aurrerako atarian amaituko da festa bihar gauetan, Agerralde orkestraren kontzertuarekin. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Bihar Aurrera KEren Eguna ospatuko dute herrian, eta horretarako goizeko 09:00etan hasi eta gaura arte hainbat ekitaldi antolatatu ditu Aurrerak.

Aurrerako pilotari eta dantzari ez gain, eguerdian bazkideek bazkaria egingen dute karrapean. «Astelohen iluntzean bilera bat egin genuen, bikote batzuk baitaude bazkide direna eta besteak ez. Azkenean bilera egin ondoren erabaki genuen bikoteei joaten uztea, baina hauek gehiago ordaindu

beharko dute». Bazkideek 15 euro ordaindu badituzte, bazkide ez direnek 22 euro ordaindu beharko dituzte.

Aurrerak gaur egun 310 bazkide inguru ditu herrian eta hainbat ekitaldi antolatzen ditu, arlo ezberdinetako taldeak Aurreraren barruan baitaude: dantza taldea, mendi taldea, pilota eskola, futbol taldea, zaldi taldea... herri mugimenduaren bizkarrezurra da beraz.

Aurtengoa ez da Aurreraren eguna antolatzen saiatzen diren lehenengo aldia. Aitziber

Sagastibeltza Aurrerako idazkariak azaldu duenez «lehenengo saiakera bat egin genuen, orain dela 2 urte, baina azkenean ez zen antolatu. Orduan planteamendua alderantziz egin zen, aurrena zenbat jende izena ematen zuen ikusi nahi zuten, baina jendearen aldetik erantzunik jaso ez zuten, bertan behera utzi zuten. Aurten alderantziz egin dugu eta bazkideei gutunak dena antolatu ondoren bidali dizkiegu». Aurten, beraz, Aurrera KEren eguna lehenengo aldiz antolatuko dute, baina Sagasti-

beltzak adierazi duenez, «ziurrenik urteror» egingen dute. Aurtengoari dagokionez, antolatu zaizkion biharko «ongi» aterako dela espero dute.

Festa egun osoan zehar

09:00etan hasiko da festa txistularien dianarekin. Goizean 10:00etatik 14:00a bitarte mendi taldeak antolatuta rokodromoaz eta tirolinaz gozatzeko aukera izanen dute haurrek. Bitartean, beste bi ekitaldi ikusi ahaliko dira plazan: 11:00etan Aurrera Pilota Eskolako pilotariak, eta 12:00etan Aurrerako dantzarien dantza saioa. Bazkal aurrean poteoa egingen dute Incansables txarangarekin eta 14:30ean bazkideen bazkaria. Ondoren bazkideek Ingurutxo dantzatzuko dute. Iluntzean berriro poteoa ibiliko dira Incansables txarangarekin eta 21:30ean eguneko azken ekitaldia izanen da: Aurreran lunch-a egingen dute, eta festarekin jarraitzeko Agerralde orkestrak Aurrerako atarian joko du.

Erakusketa Aurreran

Honetaz gain, egun guztian zehar Aurreraren egoitzan argazki zaharren erakusketa ikusgai izanen da herritar guztientzat. «Eratu berri den etxe-batzordeak antolatutako erakusketa da. Batzorde hau azkeneko bilera osatu da eta egoitzari erabilera ematea du helburu», dio Sagastibeltzak. «Dokumentu eta argazki zahar asko daude, eta txukundu egin di-

tuzte. Erakusketan, beste zenbait gauzen artean, 60. hamarkadako festetako programak ere ikusi ahaliko dira».

Agiri berria bazkideentzat

Aurten Aurrerak karneta berria egin du bazkideentzat eta bihar egingen duten bazkarian banatuko dituzte. «Bazkideen datuak bagenituen, baina artxiboa berriro nahi genuen. Karnetaren helburua bazkideei beherapen bat egitea da. Lehenago karneta identifikatzeko bazen, baina azkeneko urteetan ez da erabili». Beraz, Aurreraren Eguneko bazkarian bazkideek agiri berria jasoko dute. «Argazki guztiak ez ditugu jaso, baina ez genuen gelditu nahi karnetak entregatu gabe denek argazkia ekarri arte, bai baikenekien orduan ez genituela inoiz bukatuko», dio Sagastibeltzak.

Festa honen bitartez, Aurrerak jendeari bere leialtasuna eskertu nahi dio. «Orain arte etxea ordaintzeko mailegua geneukan, bazkideen kuotak horretarako ziren, eta ezin zen ezer ez egin. Orain jada dena ordainduta dago. Aurrerak jendeari eskerrak emateko modua hemendik aurrera antolatzen diren ekitaldietan bazkideei lehenetsuna ematea da».

EGITARAUA ▶

AURRERAREN EGUNA

09:00. Txistulariekin diana.
10:00-14:00. Rokodromo eta tirolina haurrentzat.
11:00. Aurrera pilota eskolako pilotariak plazan.
12:00. Aurrerako dantzarien dantza saioa.
13:00. Poteoa herrian barrera Incansables txarangarekin.
14:30. Aurrerako bazkideen bazkaria karrapen.
Bazkal ondoren. Bazkideek Ingurutxo dantzatzuko dute.
Iluntzean. Incansables txarangarekin poteoa.
21:30. Lunch-a Aurreran eta Agerralde orkestra Aurrerako atarian.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAn jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

hilberria ▶

Jacinto Aramendi Mendia

(Maria Dolores Irulegi Semperenaren alarguna)

ATZO hil zen, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Golan bego-



Bere arimaren zuzendaria: Inazio Galarraga; seme-alabak: Emeterio (†), Manuel (†), Joxe eta Cristina Arloja, Bittor, Ana eta Jon Bereziartua, Markel eta Miren Beraza; bilobak: Iloitz, Iurre, Ane, Ainhoa, Eider, June; anai-arrebak; ezkon anai-arrebak; ilobak; lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otloitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela GAUR OSTIRALA, arratsaldeko SEI T: ERDIETAN, Bidegoiango SAN BARTOLOME parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingen den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hilberria ▶ Betelu Gorkoa baserria.
Oinarri ▶ Gorpuz betela Tolosaldeko Funerariari Vascongado-ren
Tanatorioan egingo da, gaueko 18:00ak arte. Hileta
elitzakizunaren aurretik, Errosario Santua errezatuko da.

BIDEGOIAN, 2007ko IRAILAREN 21ean

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko irailaren 21a, ostirala ▶ V. urtea

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Kanpingags taldeak *Lapur zuloa* antzeziana eskainiko du Leidor aretoan 20:00etan.

Alegia. 19:00etan, Kultur Etxean, Txintxarri Txiki Abesbatzak hilaren 21ean egingo du lehenengo entsegua. Haur abesbatzan parte hartu nahi duten guztiak bertara azaldu beharko dute. Haur eta gazteentzako erakargarria den errepertorioa lantzen dute.

MUSIKA

Tolosa. Sevillako Vikingo MD musika taldearen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

ZINEMA

Tolosa. Donostiako Zinemaldiako film proiektzioa Leidor aretoan ikasleentzat euskaraz 10:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Gailurretik begira

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Guztira 68 argazki heldu dira lehiaketara; HITZAK etzi argitaratuko ditu zortzi finalistak; zorte on guztioi



NORVEGIAKO FIORDOAK ▶

Nerea Lopetegi (Leaburu).


«Oraingoan Norvegiako fiordo misteriosu honetako argazki hau bidaltzen dizuet, non bertako kaio batek argazkirako pose eder bat eskaintzen digun».



ALLUS LAKUAK (PIRINIOAK) ▶

Beñat Bidaola (Tolosa).

«Pirinioetan, Frantziako Allus lakuetan ateratako argazkia da. Atzean Middi Gusso gailurra ikusten da».



SUITZA ▶

Mikel Kastro (Berastegi).

«Suitzako paisaia ikusgarrietako bat, Grindelwald izeneko herritik gertu, hutsunean desagertzen den urjauzi eder hau ikusteko zortea eduki genuen».



ZELANDA BERRIA ▶

Xabier Alkorta Gorostidi.

HITZAK muga guztiak gainditzen ditu eta Xabier Alkorta Zelanda Berrian HITZA irakurtzen bidali digu argazkia.

AGURRAK ▶

URTE ASKOAN
 Irati Albeniz (Tolosa).
 4 urte beteko ditu.
 Zorionak ebekoen partetik.

hitza	Harpidedunen txokoa	AITZOL Udal Euskaltegiaren 25. urteurrenaren baitan...
	<p>Gainera, Donostiako ZINEMALDIRA doan joateko aukera ere baduzue, izan ere HITZAK 27 sarrera pare ditu zuen artean banatzeko.</p>	<p>ostiralean 20:00etan Tolosako Leidor aretoan LAPUR ZULOA antzeziana ikustera joateko 3 sarrera pare zozketatu ditugu eta hauek dira irabazleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▶ Sagrario Sorondo (Irura) ▶ Mari Kruz Gurrutxaga (Tolosa) ▶ Joxe Mari Galarraga (Villabona) <p>Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue. ZORIONAK!!!</p>
<p>Parte hartzeko, deitu 09:00etatik 13:00etara telefono zenbaki honetara: 943 65 56 95</p>		